

Egilea: JOXEMIEL BIDADOR

Titulua: **Klasiko bitxi, arront klasiko**

Aritz Galarragaren edizioa

Saio eta testigantza, 182

ISBN: 978-84-7681-971-5

24 x 17 cm • 480 or.

Salneurria: 25,00 €



Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador (Iruñea, 1970-2010) izen ezinbestekoa da honezkero gure literaturaren historian. Besteren gaintetik, ikertzaile gisa euskal literaturaren historiografia osatzeko egin zuen ekarpen handiagatik. Hainbat idazle eta testu ahanzturatik atera zituen, edota, zuzenean, ordura arte ezezagun zirenak plazaratu.

Bestalde, maisuki uztartu zituen ikerketa zorrotza eta zabalkundea. Laurehun artikulu baino gehiago argitaratu zizkioten Euskal Herriko egunkari eta aldizkarietan. Adibidez, *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Nafarkaria* gehigarrian, 1995etik 2001era, 262 guztira.

Horiatarik gehienak bildu ditugu liburu honetan, euskarazko testu-egileak aipagai dituztenak, euskarazko literaturaren nolabaiteko alde ezezaguna agerrarazten digutenak. Liburu hau ez baita euskal literaturaren historia ohiko bat, historia osotua, euskal literaturaren historia osatzera datorren liburua baizik.

Hain zuzen, euskal literaturaren B alde moduko bat da orriotan aurkituko duguna. Halakorik egon zitekeenik ez genuen uste. Bada, Bidadorrek erakutsi zigun.



JOXEMIEL BIDADOR

(Iruñea, 1970-2010)

Euskal Filologian lizentziatua (EHU), euskara eta bigarren hezkuntzako irakasle jardun zuen Iruñea nahiz Tuteran. Ikertzaile nekaezina, hainbat liburu argitaratu zituen: Alexander Tapia Perurena eta Jose Agerreren olerki lanen bildumak, Iruñeko euskarazko kazetaritza testuen antologiak, *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*, eta, oroz gain, *Materiales para una historia de la Literatura Vasca en Navarra*. Ez liburuak bakarrik, ikertutakoa prentsan ere zabaltzen zuen, *Diario de Noticias*-en, adibidez, edota *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Nafarkaria* gehigarrian. *Hutseaniko hazkurria eta beste* poema bilduma da, momentuz, argitaratu dioten sormen lan bakarra.



ARITZ GALARRAGA

(Hondarribia, 1980)

Arte eta Literatura ikasketak egin ditu Bilbo eta Bartzelonan. Azken hiri horretan ari da irakasle, UAB eta UB unibertsitateetan. Doktorego tesia idazten dihardu katalanera itzultako euskal literaturaz, UAB eta UPPA unibertsitateekin lankidetzan. Ohiko kolaboratzailea euskarazko prentsan, *Argia*, *Berria*, *Deia* edota *Erlea*-n agertu izan dira bere testuak, beti ere literaturari buruzkoak.